

<p>01.-Zein kale edo zonatan egon behar da nire bizilekua aparkatzeko zerbitzu arautuko (TAO) egoiliarrentzako aparkatzeko baimena eskuratu ahal izateko?</p>	<p>01.-¿En qué calles o zonas debe estar mi residencia para poder obtener una autorización de aparcamiento para residentes del Servicio de Estacionamiento Regulado-SER (OTA)?</p>
<p>Aparkatzeko zerbitzu arautua (TAO) arautzen duen ordenantza berriak honako bost zona hauek ezartzen ditu: https://www.getxo.eus/eu/area-prensa/actualidad/noticias/1704</p> <p>Aipatutako baimena eskuratu ahaliko dute zona bakoitzeko egoiliarrentzako aparkatzeko baimena eskatzeko eskubidea duten kale eta atariak biltzen dituen zerrendan https://www.getxo.eus/eu/area-prensa/actualidad/noticias/1704 dagoen helbidean bizilekua dutenek, betiere zerbitzuko ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.</p>	<p>La nueva Ordenanza reguladora del Servicio de Estacionamiento Regulado (OTA) establece 5 zonas. https://www.getxo.eus/es/area-prensa/actualidad/noticias/1704</p> <p>Podrán optar a dicha autorización las personas cuyo domicilio de empadronamiento figure en el listado aprobado de calles y portales con derecho a solicitud de autorización de aparcamiento para residentes en cada una de las zonas https://www.getxo.eus/es/area-prensa/actualidad/noticias/1704 y que cumplan los requisitos fijados en la Ordenanza del Servicio.</p>
<p>02.-Noiz sartuko dira indarrean aparkatzeko zerbitzu arautuaren (TAO) zona eta kale berriak?</p> <p>Aurreikusitakoaren arabera, 2022ko ekainaren lean.</p> <p>Alabaina, bosgarren zona (Ereaga hondartza eta Portu Zaharra) ekainetik irailera bitarteko hilabeteetan soilik arautuko da, biak barne.</p>	<p>02.-¿Cuándo entran en vigor las nuevas zonas y calles del servicio de estacionamiento regulado (OTA)?</p> <p>Previsiblemente, el 1 de junio de 2022.</p> <p>No obstante, la zona 5 Playa de Ereaga y Puerto Viejo solamente tendrá regulación durante los meses de junio a septiembre ambos incluidos.</p>
<p>03.-Zer egin behar dut aparkatzeko zerbitzu arautuko (TAO) egoiliarrentzako aparkatzeko baimena eskuratzeko?</p>	<p>03.-¿Qué tengo que hacer para obtener mi autorización de aparcamiento para residentes del SER (OTA)?</p>
<p><u>Eremu berrientzako baimena 2022-06-01a baino lehen eskatzen baldin baduzu:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Telematikoki, honako esteka honen bitartez. https://www.getxo.eus/es/tramites/ota/solicitud-es-ota - Telefonoz, honako zenbaki honetara deituz: 94 466 00 77 - Aurrez aurre, Areta eta Algortako herritarren arretarako bulegoetan (HAB). 	<p><u>Si solicita la autorización de forma anticipada para las nuevas zonas antes del día 01/06/2022:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - De forma telemática a través del enlace https://www.getxo.eus/es/tramites/ota/solicitud-es-ota. - De forma telefónica llamando al teléfono 94 466 00 77 - De forma presencial en las Oficinas de Atención Ciudadana (OAC) de Las Arenas y Algorta.
<p>Hiru kasutan maiatzaren 2tik aurrera 2022-06-01etik aurrera eskatzen baldin baduzu baimena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Telefonoz, honako zenbaki honetara deituz: 94 466 00 00 - Aurrez aurre, Areta eta Algortako herritarren arretarako bulegoetan (HAB). 	<p>En los tres casos a partir del 2 de mayo Si solicita la autorización a partir de 01/06/2022:</p> <ul style="list-style-type: none"> - De forma telefónica llamando al teléfono 94 466 00 00 - De forma presencial en las Oficinas de Atención Ciudadana (OAC) de Las Arenas y Algorta.
<p>(*)</p>	<p>(*)</p>
<p>04.-Zeintzuk dira aparkatzeko zerbitzu arautuko (TAO) egoiliarrentzako aparkatzeko baimena eskuratzeko baldintzak pertsona fisiko baten titulartasuneko den ibilgailu baterako?</p>	<p>04.-¿Cuáles son los requisitos para obtener la autorización de aparcamiento para residentes del SER (OTA) para un vehículo cuyo titular es una persona física?</p>

<input type="checkbox"/> Ibilgailua egoiliarrentzako aparkatzeko baimen-eskaerak barne hartzen duen zonan erroldatuta dagoen pertsona fisiko baten jabetzakoa izan behar da.	<input type="checkbox"/> El vehículo debe ser propiedad de la persona física empadronada dentro de la zona para la que se solicita la autorización de aparcamiento para residentes.
<input type="checkbox"/> Ibilgailuaren jabea izango da zirkulazio-baimenean hala ageri dena.	<input type="checkbox"/> Se considerará propietario/a del vehículo a quien conste como tal en el permiso de circulación del mismo.
<input type="checkbox"/> Titularraren erroldako helbidea bat etorri behar da ibilgailuaren zirkulazio-baimenean dagoenarekin.	<input type="checkbox"/> Debe coincidir el domicilio de empadronamiento de la persona titular con el que figura en el permiso de circulación del vehículo.
<input type="checkbox"/> Ibilgailua trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren (TMIZ) udal-errondan alta emanda egon behar da, egunean izan behar ditu ordainketak, eta bat etorri behar dira aurreko apartatueta zehaztutako titulartasuna eta bizilekua.	<input type="checkbox"/> El vehículo debe estar dado de alta en el Padrón Municipal del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM) al corriente de pago, y con coincidencia de la titularidad y el domicilio definidos en los apartados anteriores.
<input type="checkbox"/> Ibilgailuari indarrean dagoen araudian eskatutako ikuskapen teknikoak egin beharko zaizkio.	<input type="checkbox"/> El vehículo debe haber pasado las inspecciones técnicas exigidas por la normativa vigente.
<input type="checkbox"/> Egoiliarren ibilgailuetarako aparkatzeko baimenen kopuru osoa ez da BI (2) baino gehiagokoa izango etxebizitza bakoitzeko.	<input type="checkbox"/> El número total de autorizaciones de aparcamiento para vehículos de personas residentes no excederá de DOS (2) por domicilio.
<input type="checkbox"/> Interesdunak dagokion tasa ordaindu behar du.	<input type="checkbox"/> La persona interesada debe abonar la tasa correspondiente.
<input type="checkbox"/> Egoiliarrentzako aparkatzeko baimena behar duten ibilgailuek baldintza hau bete behar dute: "10-Turismo", "06-Automobila, hiru gurpil dituen" edo "31-Ibilgailu misto moldagarria" motakoak izango dira eta TMIZ turismo gisa ordainduko dute.	<input type="checkbox"/> El vehículo para el que se solicite la autorización de aparcamiento para residentes deberá pertenecer a la clase "10-Turismos", "06-Automóvil 3 ruedas" ó "31-Vehículo mixto adaptable" que tribute en el IVTM como turismo".
<p>EGOILIARRENTZAKO APARKATZEKO BIGARREN BAIMENEN kasuan, aurrekoaz gain, aipatutako bigarren ibilgailua aparkatzeko lehenengo baimenaren titularra den ezkontideak edo izatezko bikotekideak edo seme/alabak erabili beharko du normalean, eta pertsona hori helbide berean bizi beharko da.</p>	<p>En el caso de SEGUNDAS AUTORIZACIONES DE APARCAMIENTO PARA RESIDENTES, además de lo anterior, dicho segundo vehículo debe ser utilizado habitualmente por el cónyuge o pareja de hecho o hijo/a del titular de la primera autorización de aparcamiento y residir en el mismo domicilio.</p>
<p>05.-Ordenantzan mugatutako zona bateko kale batean erroldatuta nago, baina erabiltzen dudan ibilgailua pertsona juridiko baten izenean dago (renting, enpresako autoa, etab.). Nire ibilgailurako aparkatzeko baimena eskuratu dezaket?</p>	<p>05.-Estoy empadronado en una calle que pertenece a una de las zonas delimitadas por la ordenanza pero el vehículo que utilizo figura a nombre de una persona jurídica (renting, coche de empresa, etc.) ¿Puedo obtener un autorización de aparcamiento para mi vehículo?</p>
<p>Bai. Pertsona fisiko egoiliar batek modu partikularrean erabiltzen duen ibilgailu batentzako baimena eskuratu dezake, nahiz eta ibilgailua pertsona juridiko batena izan.</p>	<p>Sí. Una persona física residente puede obtener una autorización para el vehículo que utiliza de forma particular, aunque pertenezca a una persona jurídica.</p>
<p>06.-Zein betekizun bete behar ditut egoiliarrentzako aparkatzeko baimena eskuratzeko baldin eta nire ibilgailua pertsona juridiko baten izenean badago?</p>	<p>06.-¿Cuál son los requisitos para obtener una autorización de aparcamiento para residentes si mi vehículo está a nombre de una persona jurídica?</p>

<p><input type="checkbox"/> Pertsona juridiko baten jabetzakoa den ibilgailuak Getxon bizi den pertsona batek erabili beharko du; egoiliar hori biztanleen udal-erroldan hala alta emanda egongo da, eta aipatutako baimena eskatu den zonaren barruan inskribatuta egongo da.</p> <p><input type="checkbox"/> Ibilgailuari indarrean dagoen araudian eskatutako ikuskapen teknikoak egin beharko zaizkio.</p> <p><input type="checkbox"/> Ibilgailuen jabe bakoitzari egoiliarrentzako aparkatzeko baimen BAKARRA (1) emango zaio.</p> <p><input type="checkbox"/> Baimenen kopuru osoa ez da BI (2) baino gehiagokoa izango etxebizitza bakoitzeko.</p> <p><input type="checkbox"/> Interesdunak dagokion eskaera bete beharko du, bai eta tasa ordaindu eta adierazi diren dokumentuak aurkeztu ere.</p> <p>Egoiliarrentzako aparkatzeko baimena behar duten ibilgailuek baldintza hau bete behar dute: "10-Turismo", "06-Automobila, hiru gurpil dituen" edo "31-Ibilgailu misto moldagarria" motakoak izango dira eta TMIZ turismo gisa ordainduko dute.</p>	<p><input type="checkbox"/> El vehículo, propiedad de persona jurídica, deberá estar destinado al uso particular de una persona residente de hecho, dada de alta como tal en el Padrón Municipal de Habitantes, e inscrita dentro de la zona para la cual solicita la referida autorización.</p> <p><input type="checkbox"/> El vehículo debe haber pasado las inspecciones técnicas exigidas por la normativa vigente.</p> <p><input type="checkbox"/> Sólo se concederá UNA (1) autorización de aparcamiento para residentes por propietario/a de vehículo.</p> <p><input type="checkbox"/> El número total de autorizaciones no excederá de DOS (2) por domicilio.</p> <p><input type="checkbox"/> La persona interesada debe cumplimentar la solicitud correspondiente, abonar la tasa y aportar los documentos que se indican.</p> <p>El vehículo para el que se solicite la autorización de aparcamiento para residentes deberá pertenecer a la clase 10-Turismos", "06-Automóvil 3 ruedas" ó "31-Vehículo mixto adaptable" que tribute en el IVTM como turismo".</p>
<p>07.-Zenbat denbora itxaron behar da baimena eskuratzeko?</p> <p>Ordenantzan ezarritako betekizun guztiak bete baldin badira, berehala onartzen da baimena; alabaina, aurreikusitako 2022ko ekainaren lehen sartuko dela indarrean.</p> <p>Araudi berriarekin ez da egoiliarrentzako aparkatzeko bereizgarri fisikorik (ibilgailuan jarri beharreko txartelik) egongo, baimena birtuala baita.</p>	<p>07.-¿Cuánto tiempo se tarda en obtener la autorización?</p> <p>Si se cumplen todos los requisitos previstos por la Ordenanza la autorización se concede de forma inmediata; no obstante, su entrada en vigor se prevé a partir del 1 de junio 2022.</p> <p>Con la nueva regulación no existe distintivo físico de aparcamiento para residentes (tarjeta para colocar en el vehículo), ya que la autorización es virtual.</p>
<p>08.-Zein indarraidi du baimenak?</p> <p>Baimena aribideko urte naturalean egongo da indarrean, abenduaren 31ra arte.</p> <p>Lehenengo urtean, interesdunak eskaeraren eredu normalizatua aurkeztu beharko du baimena eskatzeko; eredu hori behar bezala beteta egon beharko da, eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko da horrekin batera. Berehala onartuko da baimena baldin eta ordenantzan ezarritako betekizun guztiak betetzen badira.</p> <p>Ondorengo urteetan, automatikoki berrituko zaie zerbitzuan baja eskatu ez duten erabiltzaile guztiei, betiere baldin eta ordenantzan ezarritako betekizunak betetzen jarraitzen badute.</p> <p>Zerbitzuarekin jarraitu nahi ez dutenek zerbitzuan baja emateko eredu normalizatua aurkeztu beharko dute herritarren arretarako bulegoren batean.</p>	<p>08.-¿Qué plazo de vigencia tiene la autorización?</p> <p>La autorización tiene validez para el año natural en curso, hasta el 31 de diciembre.</p> <p>El primer año, la persona interesada deberá solicitar la autorización presentando el modelo normalizado de solicitud, debidamente cumplimentado y con la documentación requerida. Se le concederá de manera inmediata si cumple todos los requisitos previstos en la Ordenanza.</p> <p>Para los años sucesivos se renovará automáticamente a todas las personas usuarias del servicio que no hayan comunicado la baja del mismo y continúen cumpliendo con los requisitos previstos en la Ordenanza.</p> <p>En caso de no haber interés en continuar, se deberá presentar el modelo normalizado de baja del servicio en alguna Oficina de Atención Ciudadana.</p>
<p>09.-Nire bizilekua zona horien barneko kale batean dago, baina zona horietatik kanpo dagoen kale batean nago erroldatuta. Nire ibilgailuarentzat baimena eskuratu al dezaket?</p> <p>Ez. Baimena eskuratzeko, interesduna ordenantzan jasotako zonaren batek barne hartzen duen kale/atari batean erroldatuta egon behar da eta modu eraginkorrean bizi. Eta helbide hori bera ageri beharko da zirkulazio-baimenean.</p>	<p>09.-Mi residencia está en una calle de las zonas indicadas pero estoy empadronado en otra calle que no pertenece a ninguna de las zonas ¿Puedo obtener una autorización?</p> <p>No. Para obtener la autorización, la persona interesada debe estar empadronada y residir de manera efectiva en una calle/portal que esté incluida en alguna de las zonas señaladas por la ordenanza. Y esa misma dirección debe ser la que conste en el permiso de circulación.</p>
<p>10.-Ordenantzan mugatutako zona bateko kale batean erroldatuta nago, baina nire ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea beste bat da. Nire ibilgailuarentzat baimena eskuratu dezaket?</p>	<p>10.-Estoy empadronado en una calle que pertenece a una de las zonas delimitadas por la ordenanza pero la dirección que consta en el permiso de circulación de mi vehículo es diferente ¿Puedo obtener una autorización?</p>

Ez, salbuetsiz pertsona juridiko baten izenean matrikulatutako turismo baten erabilera partikularra izatea.	No, salvo que se trate de un uso particular de un turismo que esté matriculado a nombre de una persona jurídica.
11.-Ez naiz Getxon bizi baina laneko, merkataritzako edo enpresako jarduera edo jarduera profesionala Getxon gauzatzen dut. Nire ibilgailuarentzako baimena eskuratu dezaket?	11.-No resido en Getxo pero sí desarrollo en el municipio mi actividad laboral, comercial, empresarial o profesional ¿Puedo obtener una autorización?
Ez. Baimena Getxon bizi diren pertsonen eta egoiliarrek modu partikularrean erabiltzen dituzten ibilgailuetarako da soilik.	No. La autorización es exclusivamente para vehículos que pertenezcan a personas residentes en Getxo o se destinen al uso particular de una persona residente.
12.-Edozein ibilgailu-motarentzat eskatu daitezke baimenak?	12.-¿Puede solicitarse la autorización para cualquier tipo de vehículo?
Ez. Aparkatzeko baimenak honako baldintza hau betetzen duten ibilgailuetarako dira soilik: "10-Turismo", "06-Automobila, hiru gupil dituen" edo "31-Ibilgailu misto moldagarria" motakoak diren ibilgailuak eta TMIZ turismo gisa ordaintzen dutenak.	No. Las autorizaciones de aparcamiento son exclusivamente para vehículos que pertenezcan a la clase "10-Turismos", "06-Automóvil 3 ruedas" o "31-Vehículo mixto adaptable" que tribute en el IVTM como turismo.
13.-Ba al dago beste mugarik ibilgailuentzat baimena eskuratzeko?	13.-¿Existe alguna otra limitación respecto al vehículo para obtener la autorización?
Bai. Ibilgailuak indarrean dagoen araubidean jasotako ikuskapen teknikoak gainditu beharko ditu.	Si. El vehículo debe haber superado las Inspecciones Técnicas exigidas por la normativa vigente.
14.-Baimena eskuratu dezaket TMIZ ordaindu gabe?	14.-¿Puedo obtener la autorización si no he abonado el IVTM?
Ez. Interesdunak egunean izan behar du zerga horren ordainketa.	No. La persona interesada debe estar al corriente del pago de dicho impuesto.
15.-Mugarik ba al dago baimen-kopuruari dagokionez?	15.-¿Existe alguna limitación en cuanto al número de autorizaciones?
Bai. Orokorrean, pertsona bakoitzeko egoiliarrentzako aparkatzeko baimen bat eskuratu ahal izango da, eta etxebizitza bakoitzeko egoiliarrentzako aparkatzeko bi baimen.	Si. Con carácter general, se establece el límite máximo de 1 autorización de aparcamiento para residentes por persona y dos autorizaciones de aparcamiento para residentes por domicilio.
16.-Pertsona juridiko baten jabetzakoa den ibilgailu baten baimenaren titularra naiz. Egoiliarrentzako aparkatzeko bigarren baimena eskuratu al dezaket nire jabetzakoa den eta nire ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak erabiltzen duen ibilgailurako?	16.-Soy titular de una autorización para un vehículo que es propiedad de una persona jurídica. ¿Puedo obtener una segunda autorización de aparcamiento para residentes para otro vehículo de mi propiedad que utiliza mi cónyuge, pareja de hecho o mi hijo/a?
Ez. Bigarren baimena eskuratzeko, lehenengo baimenaren titulartasuna pertsona fisiko batek izan behar du.	No. La obtención de una segunda autorización sólo es posible cuando la primera autorización se ha concedido para un vehículo cuya titularidad pertenece a una persona física.
17.-Nire jabetzakoa den ibilgailu baten baimenaren titularra naiz. Egoiliarrentzako aparkatzeko bigarren baimena eskuratu al dezaket nire jabetzakoa den eta nire ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak erabiltzen duen ibilgailurako?	17.-Soy titular de un autorización para un vehículo mi propiedad ¿Puedo obtener una segunda autorización de aparcamiento para residentes para otro vehículo de mi propiedad que utiliza mi cónyuge, pareja de hecho o mi hijo/a?

<p>Bai, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskatzen den lehenengo txartela ezin da izan pertsona juridiko baten jabetzako ibilgailu batentzat. - Bigarren ibilgailua bere izenean egon behar da zirkulazio-baimenean. - Ibilgailuaren IAT egunean egon beharko da. - Zirkulazio-baimenaren helbidea erroldako eta bizilekuko helbide bera izan behar da. - Helbidea aparkatzeko zerbitzu arautuko zona baten barnean egon behar da. - Ibilgailua ohiko moduan erabili beharko du ezkontideak, izatezko bikotekideak edo seme/alabak. - Ibilgailua ohiko moduan erabiltzen duen ezkontidea, izatezko bikotekidea edo seme/alaba helbide horretan erroldatuta egon behar da. - TMIZ egunean egon beharko da. 	<p>Sí cuando:</p> <ul style="list-style-type: none"> - La primera tarjeta solicitada no puede ser por un vehículo que sea propiedad de una persona jurídica. - El segundo vehículo debe figurar a su nombre en el permiso de circulación. - El vehículo debe contar con la ITV al día. - La dirección del permiso de circulación debe ser la misma dirección de empadronamiento y residencia. - La dirección debe pertenecer a una Zona SER. - El vehículo debe ser utilizado habitualmente por el cónyuge, pareja de hecho o hijo/a. - El cónyuge, pareja de hecho o hijo/a que utiliza habitualmente el vehículo debe figurar empadronado en la citada dirección. - Debe encontrarse al corriente del IVTM.
<p>18.-Ibilgailu berri bat dut. Aurreko aparkatzeko baimena erabili dezaket?</p> <p>Ez. Baimenak ibilgailuen matrikulari lotuta daude, eta, beraz, baimena onartu zaien pertsonen udalari hamabost eguneko epean jakinarazi beharko diote ibilgailua aldatu izana.</p> <p>Horretarako, aparkatzeko zerbitzu arautuko baimena aldatzeko eskaeraren eredu normalizatua aurkeztu beharko da. behar bezala beteta eta beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.</p> <p>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, ibilgailuaren jabetza besterendu ondoren baimena erabiltzen bada, arau-hauste larria gauzatuko da. Halaber, ibilgailu-aldaketaren berri ez ematea arau-hauste oso larria da.</p>	<p>18.-He adquirido un vehículo nuevo, ¿es válida mi autorización de aparcamiento anterior?</p> <p>No. La autorización está asociada a la matrícula del vehículo por lo que las personas a las que les haya sido concedida tienen la obligación de comunicar al Ayuntamiento los cambios de vehículo en el plazo de 15 días.</p> <p>Para ello, deberá presentar el modelo normalizado de "Solicitud Cambio autorización SER", debidamente cumplimentado y con la documentación requerida.</p> <p>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar la autorización una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó es considerado infracción grave. Así mismo, el incumplimiento de la obligación de comunicar el cambio de vehículo es considerado infracción muy grave.</p>
<p>19.-Zenbat balio du baimenak?</p> <p>Ibilgailu bakoitzeko urteko kuota 50 eurokoa da 2022. urtean lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren zonetarako. 2022an, bosgarren zonako tarifa 27,99 eurokoa da.</p> <p>Baimena aldatzearen (ibilgailu-aldaketa, etxebizitza-aldaketa, etab.), 4,70 euro kobratuko dira 2022an.</p> <p>Zerbitzuan alta edo baja ematean, zerga-kuotak hilabete naturalen arabera hainbanatzen dira.</p>	<p>19.-¿Cuánto cuesta la autorización?</p> <p>La cuota anual por cada vehículo es de 50 € en el año 2022 para las zonas 1, 2, 3 y 4. La tarifa de la zona 5 para el año 2022 es de 27,99 €</p> <p>Por modificación de la autorización (cambio de vehículo, cambio de domicilio...), se cobrará una cuota de 4,70 € en el año 2022.</p> <p>En los casos de alta o baja, la cuota tributaria se prorratea por meses naturales.</p>
<p>20.-Etxebizitza aldatuko dut. Aurreko baimena erabili dezaket?</p> <p>Ez. Baimenak udalerrian bizi den pertsona fisikoaren helbideari ere lotuta daude, eta, beraz, baimena onartu zaien pertsonen udalari hamabost eguneko epean jakinarazi beharko diote etxebizitza aldatu izana.</p> <p>Horretarako, egoiliarrentzako baimena aldatzeko eskaeraren eredu normalizatua aurkeztu beharko da behar bezala beteta eta beharrezkoa den dokumentazioarekin batera.</p> <p>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, egoiliarren baimena bizileku-zonatik kanpo erabiltzea arau-hauste larria izango da. Halaber, etxebizitza-aldaketaren berri ez ematea arau-hauste oso larria da.</p>	<p>20.-Voy a cambiar de domicilio ¿Es válida mi autorización?</p> <p>No. La autorización está también asociada a la dirección de la persona física residente en el municipio, por lo que las personas a las que les haya sido concedida la autorización tienen la obligación de comunicar al Ayuntamiento los cambios de domicilio en el plazo de 15 días.</p> <p>Para ello deberá presentar el modelo normalizado "Solicitud de modificación de autorización de residentes", debidamente cumplimentado y con la documentación requerida.</p> <p>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar la autorización de residente fuera de la zona de residencia correspondiente es considerado infracción grave. Asimismo, el incumplimiento de la obligación de comunicar el cambio de domicilio es considerado infracción muy grave.</p>

<p>21.-Erabili ahal dezaket nire baimena noizean behin beste zona batean aparkatzeko?</p> <p>Ez. Aparkatzeko baimenak ordutegi-mugarik gabe aparkatzeko aukera ematen du bakarrik baimenak barne hartzen duen zonako edozein kaletan, txandakatze altuko azpizona deritzenetan izan ezik.</p> <p>Aparkalekuko tiketa erosi beharko duzu honako kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txandakatze altuko azpizonetan aparkatzen baduzu. - Baimendutako zonatik kanpo baldin bazoaz. <p>Zerbitzuaren ordenantza arautzailearekin bat eginez, egoiliarrentzako aparkatzeko baimena bizileku-zonatik kanpo erabiltzea arau-hauste larria izango da.</p>	<p>21.-¿Es válida mi autorización de aparcamiento de mi zona para aparcar de forma ocasional en otra?</p> <p>No. La autorización de aparcamiento le permite estacionar sin sujeción a la limitación horaria exclusivamente en cualquiera de las calles de la zona para la que está autorizado, excepto en las denominadas subzonas de alta rotación.</p> <p>Deberá obtener el correspondiente ticket de aparcamiento:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Si estaciona en las subzonas de alta rotación. - Si se desplaza a otra zona distinta de la autorizada. <p>Conforme a la Ordenanza reguladora del servicio, utilizar la autorización de aparcamiento para residentes fuera de la zona de residencia correspondiente es considerado infracción grave.</p>
<p>22.-Zerbitzuaren baja eskatuz gero tasa hainbanatzen da?</p> <p>Bai. Alta berrien edo bajen kasuan, tasaren zerga-kuota zerbitzuan alta emanda egondako hilabete naturalen arabera hainbanatzen da. Alta berrien kasuan, udalak hainbanatuta igorriko du ordainagiria.</p> <p>Bajen kasuan, interesdunak urteko kuota ordaindu beharko du, eta, ondoren, dagokion itzulketa kudeatuko da. Baja dela-eta itzulketa egin behar denean, eta ordainketa zenbait epetan egin bada, itzuli beharreko kopurua azken epean ordaindu zela ulertuko da. Nahierako ordainketa edo helbideratutako ordainketa arruntaren modalitatea daukaten ordainagiriak izanik, kontuaren titularraren aginduz banku-helbideratzeak ukatzeko lege ezarritako epea igaro ondoren itzuliko da bidegabeki jasotakoa.</p>	<p>22.-¿Se prorratea la tasa en el caso de que solicite la baja del servicio?</p> <p>Sí. En los casos de altas nuevas o bajas, la cuota tributaria de la tasa se prorratea por los meses naturales en los que ha estado de alta en el servicio. En los casos de alta nueva, el recibo se emitirá ya prorrateado por el Ayuntamiento.</p> <p>En los casos de baja, la persona debe abonar la cuota anual y posteriormente se gestionará la devolución correspondiente. Cuando proceda la devolución por baja, y se hubiera ingresado en varios plazos, se entenderá que la cantidad a devolver se ingresó en el último plazo. Tratándose de recibos acogidos a la modalidad de pago domiciliado ordinario o pago a la carta, la devolución de ingresos indebidos se realizará una vez transcurrido el plazo legalmente establecido para el rechazo de domiciliaciones bancarias por orden del titular de la cuenta.</p>
<p>23.-Tasaren betekizuna zehazteko zein data hartzen da kontuan?</p> <p>Egoiliarrentzako aparkatzeko baimenaren tasa urte bakoitzeko urtarrilaren lehen sortzen da eta, beraz, tasa ordaindu beharko dute egun horren aurretik zerbitzuaren baja udalean jakinarazi ez dutenek.</p>	<p>23.-¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia de la tasa?</p> <p>La tasa por "autorización de aparcamiento para residentes" se devenga el día 1 de enero de cada año y por ello estarán obligados al pago de la misma quienes en esa fecha no hayan comunicado al Ayuntamiento la baja en el servicio.</p>
<p>24.-Nork ordaindu behar du tasa?</p> <p>Pertsona fisikoen izenean dauden ibilgailuen kasuan (A eta B kasuak), beti turismoaren titularrak. Pertsona juridikoen ibilgailuak direnean (C kasua), subjektu pasiboa pertsona fisiko egoiliarra izango da (ohiko gidaria).</p>	<p>24.-¿A quién se exige la tasa?</p> <p>En el caso de vehículos a nombre de persona física (casos A y B), siempre al titular del turismo. Cuando se trate de vehículos propiedad de persona jurídica (caso C), el sujeto pasivo es la persona física residente (el conductor habitual).</p>
<p>25.-Noiz ordaindu behar dut baimenari dagokion tasa?</p>	<p>25.-¿Cuándo tengo que pagar la tasa correspondiente a la autorización?</p>

<p>Ordaindu beharreko tasa urteroko aldizkako zerga bat da, eta zergaldia urte naturalarekin bat dator.</p> <p>Altaren urtean, tasa alta-eskaria aurkezteko unean ordaindu beharko da.</p> <p>Hurrengo urteetan, tasa ordaintzeko data zehatzak udalak urtero onartuko duen zergadunen zerga-egutegian finkatuko dira. Data horiek jakitera emango dira, zerga-egutegia BAOn eta udalaren webgunean argitaratuz (www.getxo.eus) </p>	<p>La tasa a abonar es un tributo periódico de carácter anual y el periodo impositivo coincide con el año natural.</p> <p>En el año del alta, deberá abonarse la tasa en el momento de presentarse la solicitud de alta.</p> <p>Para los años sucesivos, las fechas concretas en las que debe procederse al pago de la tasa estarán fijadas en el Calendario Fiscal del Contribuyente que cada año apruebe el Ayuntamiento. Dichas fechas se darán a conocer mediante la publicación del Calendario Fiscal en el BOB y en la página web del Ayuntamiento www.getxo.eus</p>
<p>26.-Nola ordain dezaket tasaren likidazioa?</p> <p>Aldizkako zerga denez, udalak honako aukerak eskaintzen dizkie zergadunei:</p> <ol style="list-style-type: none"> Helbideratu gabeko ordainketa: Udalak etxeetara ordainagiri bakoitzeko ordainketa-gutun bana igortzen du, bertan adierazitako epean zergadunak zuzenean eta aurrez aurre ordain dezaten finantza-erakundean edo modu telematikoan, entitatearen webgunearen bitartez edo Eusko Jaurlaritzako ordainketa-pasabidearen bitartez. Ohiko helbideratutako ordainketa: Zergadunak berariaz eskatzen baldin badu Aldizkako Zergen helbideratzerako ohiko dokumentua aurkeztearen bitartez eta bertan jasotako dokumentazioarekin batera, udalak zergaren ordainagiria epe bakarrean kobratuko du zergadunak zerga-egutegian urte bakoitzerako adierazitako epean. Helbideratutako ordainketa zatikatua, interesik gabe, "Nahieran" izenekoa: Zergadunak berariaz eskatzen baldin badu Aldizkako Zergen helbideratzerako ohiko dokumentua aurkeztearen bitartez eta bertan jasotako dokumentazioarekin batera, udalak zergaren ordainagiria epe bakarrean kobratuko du zergadunak zerga-egutegian urte bakoitzerako aukeratutako epeetan (lau epe eta bi epe). <p>Erroldako altari dagokion zergaldian, zergadunak ezingo du helbideratutako ordainketa-modalitatea aukeratu, eta, zerga ordaintzeko, erroldan alta ematean jasotzen duen ordainketa-gutuna erabili beharko du. Erroldan alta ematen zaion zergaldian aurkezten diren helbideratze-eskariak kontuan hartuko dira altaren hurrengoko zergaldian.</p>	<p>26.-¿Cómo puedo proceder al pago de mi liquidación de la tasa?</p> <p>Al tratarse de un tributo de carácter periódico, el Ayuntamiento ofrece a los contribuyentes las siguientes formas de pago:</p> <ol style="list-style-type: none"> Pago no Domiciliado: El Ayuntamiento remite al domicilio una carta de pago por cada recibo para que el contribuyente la abone en el plazo que en ella se indica, bien directamente de forma presencial en una de las entidades financieras asociadas, bien de forma telemática a través de la web de su entidad o través de la pasarela de pagos del Gobierno Vasco. Pago Domiciliado Ordinario: Si el contribuyente lo solicita expresamente mediante la presentación del <i>Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos</i>, junto con la documentación requerida, el Ayuntamiento procederá a girar el recibo del impuesto en un único plazo en el número de cuenta que haya sido indicado por el contribuyente en las fechas que en cada año señale el Calendario Fiscal. Pago domiciliado fraccionado sin intereses denominado Pago a la Carta: Si el contribuyente lo solicita expresamente mediante la presentación del <i>Documento normalizado Domiciliación de Tributos periódicos</i>, junto con la documentación requerida, el Ayuntamiento procederá a girar el recibo del impuesto en los plazos elegidos (4 plazos y 2 plazos), en el número de cuenta que haya sido indicado por el contribuyente en las fechas que en cada año señale el Calendario Fiscal. <p>En el periodo impositivo correspondiente al alta en el padrón, el contribuyente no podrá acogerse a las modalidades de pago domiciliado debiendo abonar el impuesto utilizando la carta de pago que se le entrega con ocasión del alta en el padrón. Las solicitudes de domiciliación que se presenten en el periodo impositivo correspondiente al alta en el padrón serán tenidas en cuenta para el periodo impositivo siguiente al del alta.</p>
<p>27.-Ordainagiria etxean jakinaraziko didazue?</p>	<p>27.-¿Me notificáis el recibo a mi domicilio?</p>

<p>Alta eman den urtean, jakinarazpena interesdunak egindako eskariarekin batera egiten da.</p> <p>Hurrengo urteetan likidazioak ez zaizkio banaka zergadun bakoitzari jakinaraziko; aitzitik, modu kolektiboan jakinaraziko dira, BAO<i>n</i> iragarki bat argitaratuz. Hala, zergaren errola onetsi izana eta zergadunak tasa borondatezko aldian ordaintzeko datak ere jakinaraziko dira.</p> <p>Zergadunaren betebeharra errazteko, udalak ordainketa helbideratua hautatu ez dutenen zerga-egoitzara igorriko ditu ordainketa-gutunak, eta horiei esker tasa atxikitako finantza-erakundeetan ordaindu ahal izango da.</p> <p>Jakinarazteko betebeharra BAO<i>n</i> iragarki bat argitaratuz bete denez, aipatutako ordainketa-gutunak ez jasotzeak ez du jakinarazpen-akatsik eragingo eta, horrenbestez, zergadunaren betebeharra izango da aipatutako dokumentua Udalaren Zerga alorreko Arreta Zerbitzuan lortzea, tasa borondatezko aldian ordaindu ahal izateko.</p>	<p>En el año correspondiente al alta, la notificación se produce con ocasión de la solicitud realizada por el interesado.</p> <p>En los años sucesivos, la notificación de las liquidaciones ya no se realiza de forma individual a cada contribuyente sino de forma colectiva, mediante publicación de un anuncio en el BOB indicando la aprobación del padrón del tributo y las fechas en las que el contribuyente deberá proceder al pago de la tasa en período voluntario.</p> <p>Para facilitar esta obligación del contribuyente, el Ayuntamiento remite al domicilio fiscal de aquellos que no hayan optado por el pago domiciliado cartas de pago que le permitirán el abono de la tasa en las entidades financieras adheridas.</p> <p>Debido a que la obligación de notificar ha sido cumplida a través del anuncio en el BOB, la no recepción de las cartas de pago indicadas no supone un defecto de notificación y, por tanto, será obligación del contribuyente obtener el citado documento en el servicio de atención tributaria del Ayuntamiento para proceder al pago de la tasa en período voluntario.</p>
<p>28.-Likidazioak zein helbidetan jakinaraziko zaizkit, edo ordainketa-gutunak nora igorriko zaizkit?</p> <p>Tasaren erroldan altari dagozkion likidazioak eta ondorengo ordainketa-gutunak zerga-egoitzara igorriko dira.</p> <p>Helbide hori udalaren Zerga alorreko Arreta Zerbitzuan kontsultatu daiteke. Helbidea aldatu nahi baduzu, "zerga-egoitzaren aldaketa" izeneko agiria aurkeztu behar duzu Erregistro Orokorrean, eskatutako dokumentazioarekin batera.</p>	<p>28.-¿A qué dirección se me notifican las liquidaciones o se me remiten las cartas de pago?</p> <p>Las liquidaciones correspondientes al alta en el padrón de la tasa y las sucesivas cartas de pago se remiten al domicilio fiscal.</p> <p>Puede consultar dicha dirección en el Servicio de Atención Tributaria del Ayuntamiento. Si desea modificar dicha dirección deberá presentar en el Registro General el documento normalizado denominado <i>Cambio de Dirección Tributaria</i>, junto con la documentación requerida.</p>
<p>29.-Getxon bizi naiz, bosgarren zonan (Ereaga hondartza eta Portu Zaharra) doan aparkatu dezaket?</p> <p>Ez. Ez bosgarren zonan, ez gainerakoetan, horietarako baten baterako berariazko baimena izan ezean.</p> <p>Zona horietan aparkatzeko, aparkalekuko tiketa erosi beharko duzu horretarako gaitutako bitartekoen bidez eta bat etorri dagokion ordenantza fiskalean onetsitako tarifekin.</p>	<p>29.-¿Soy residente en Getxo, puedo aparcar gratis en la zona 5 (playa Ereaga y Puerto Viejo)?</p> <p>No. Ni en la zona 5 ni en el resto de zonas, salvo que posea autorización expresa para alguna de ellas.</p> <p>Para poder estacionar en estas zonas deberá obtener el correspondiente ticket de aparcamiento a través de los medios habilitados para ello y conforme a las tarifas vigentes aprobadas por la Ordenanza fiscal correspondiente.</p>
<p>30.-Zein betebeharrak ditu egoiliarrentzako aparkatzeko baimen baten titularrak?</p> <p>Baimenaren titularrak baimenaren ardura izango du, eta udalean jakinarazi beharko ditu honakoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza-aldaketak. - Ibilgailu-aldaketak. - Baimenari baja eman izana. - Ibilgailuari baja eman izana edo besterendu izana. <p>Gainera, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako urteko tasa ordaindu beharko du.</p>	<p>30.-¿Qué obligaciones tiene el titular de una autorización de aparcamiento para residentes?</p> <p>La persona titular de una autorización es responsable de la misma y debe comunicar al Ayuntamiento:</p> <ul style="list-style-type: none"> - El cambio de domicilio. - El cambio de vehículo. - La baja de la autorización. - La baja o transferencia del vehículo. <p>Además, debe abonar anualmente la tasa establecida en la ordenanza fiscal correspondiente.</p>
<p>(*)</p> <p>31.- Jada dagoen TAO guneko batekoa baldin banaiz baina txartelik ez badut eta hura eskatu nahi baldin badut, zer egin behar dut? Telematikoki egin al dezaket?</p>	<p>(*)</p> <p>31.-¿Si pertenezco a una zona OTA ya existente, pero no tengo tarjeta y quiero solicitarla, qué tengo que hacer?. ¿Puedo hacerlo telemáticamente?</p>

Jada dauden TAO gunetan bizi direnek, aparkatzeko baimenik ez badute eta hura eskatu nahi badute, ezin izango dute aldi honetan gunen berrietarako ezarritako prozeduraren bidez eskatu.

Ekainean ordenantza berria indarrean sartu arte, orain arte egin izan den moduan izapidetu beharko dute baimena: aurrez aurre, herritarren arretarako bulegoetan; horretarako, alde zuzenean hitzordua eskatu beharko dute 944 66 00 00 telefono-zenbakira deituz.

Jada alta emanda daudenek, zerbitzuarekin jarraitu nahi izanez gero, ez dute inolako izapiderik egin beharko, automatikoki egingo baitzaie.

Quienes residan en zonas OTA ya existentes, no cuenten con autorización de aparcamiento y deseen solicitarla no podrán seguir el procedimiento establecido para las nuevas zonas durante este periodo.

Hasta que entre en vigor la nueva ordenanza en junio, deberán tramitar la autorización como se venía haciendo hasta la fecha: de forma presencial en las Oficinas de Atención Ciudadana con cita previa en el 944 66 00 00.

Quienes ya estén dadas de alta y quieran continuar no deberán realizar ningún trámite; se hará automáticamente.